


3. ZORIONTASUNA ETA JAINKOA EDUKITZEA

- San Agustinen kezka nagusia ez zen bakarrik EGIA topatzea, baizik eta, ororen gainetik **bihotza aseko** zuen **egia topatzea**. **Hau da, zoriontasuna topatzea**. Agustin **Eudemonista** zen (*Eudaimonia* grezierazko termino bat da, oro har, **zoriontasun**, **ongizate** edo **bizitza on** gisa itzulia. Etimologikoki, "eu" ("ona") eta "daimon" ("espiritu"). "bertutea").
- Benetako **zoriontasuna egia osoz jabetzean datza, baina egi partikular guztiak traszenditzen** dituen egia izan behar du: **Jainkoa**. (jainko hori ezagutzeak eta edukitzeak zoriontasuna eskeintzen dio gizakiari).
<https://www.youtube.com/watch?v=RlrVdUoftbk>

3. ZORIONTASUNA ETA JAINKOA EDUKITZEA

* Agustinentzat aipatutako eudemonismo hori:

- a. Ez dago suntsi daitekeen **ondasun materialetan** edo nahiak (grinak) asetzean.
- b. Ezta ere Epikurotarren “ **plazer baketsua**”n moderatuetan ere (Gizaki jakintsuek ez dute politikan parte hartu behar, politika nahigabeen jatorria baita. Adiskidetasuna eta askatasun pribatuak baliosten dira. **Ataraxia** deritzona, beldur, min eta kezkarik gabe. Plazera ez zentzu materialean, **plazer espiritual**a edo afektiboa baizik).
- c. Ezta **Estoizismoan** ere. **Zenonek sortu zuen eskola**. Benetako askatasun pertsonala bilatu behar da, baina politikan parte hartuz.. **Gizakiak lortu behar duen zoriontasuna ez da plazerean oinarritzen , baizik eta bertutearen jardueran, autokontrollean.** Zorigaitzen aurrean ikaragaitz izatean datza. Moralaren lehen agindua, naturaren arabera bizitzea da. **Zoriontasuna patua onartzean datza.**



3. ZORIONTASUNA ETA JAINKOA EDUKITZEA

- Agustinek horrela **eszeptizismoaren** (“ ez dago inolako ezagutza ziurrik”) **kontrako** argudioak garatu zituen.
 - a. Ezin badugu ezer ziurtasunez ezagutu, ezin dugu inolako ezagutza ziurrik ez dagoela dioen tesia ziurtasunez baieztatu.
 - b. “ **Si fallor sum**”, **huts egiten badut, orduan existitzen naiz**. Horrek frogatzen du eszeptizismo absolutua ezinezkoa dela. Egia badela eta ezagutza posible dela.

Oharra. Aipatutako Agustinen baiztapena eta Descarttesen (XVII.mendea) “ Cogito ergo sum” (pentsatzen dut, beraz, banaiz) gauza bera dira.



ASETZEN DUEN BAKARRA ETA BETIEREKOA DENA JAINKOA DA.

- Introspekzioaren bidez, saiatu zaitez zure barnean daramazun Animarekin bat egiten (beste filosofo guztiek pentsatzen zuten zoriontasuna kanpoan zegoela).
- Filosofia ikaskuntza-prozesu bat da, Egiaren etengabeko bilaketa, ez helburu akademikoekin, Ontasuna praktikatzeko baizik.
- Arimak, gorputzak bezala, bi elikadura mota izan dezake: Onuragarria edo kaltegarria
- Arimaren elikagai onuragarria zientzia (ezagutza) da eta Agustinengan benetako ezagutza EGIA da (Jainkoa).
- Gizakiak zoriontsua izateko, benetako elikaduraren nahia izan behar du.
- Jainkoa edukitzearekin identifikatzen da zoriontasuna, bera baita ondasun iraunkor bakarra.
- Jainkoaren jabe izango da **ondo bizi** dena, Jainkoaren nahia betetzen duena eta arima garbia duena (maitasuna, justizia...)

